



txanela

Irakaslearen gidaliburua (zirriborroa)

7

Bukatu da, akabo!

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 6. maila)

TXANELA 3:ZAZPIGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

“BUKATU DA, AKABO!”

Unitate honetan ez da eduki berririk lantzen, urte honetan landutakoa berrikusi egiten da eta nahi izanez gero, hauetako jarduera batzuk, alderdi jakin batzuk behatzeko ere erabili ditzakegu.

Proiektua: Urte honetan egindakoa berrikusi eta dantza-kanta-bertso agerraldi bat antolatu.

Unitatearen sekuentzia eta arloz-arlo berrikusten diren edukiak zein diren jakiteko, aldeztu aurretik irakur ezazue ikasnorabidea.

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Olerkiak: <i>Joxean Ormazabal</i> . Ipuinak: “Txalopin txalo” <i>J.M. Olaizola</i> “ <i>Txiliku</i> ”. Bertsoa: “Ikasturteari akabera” <i>Mikel Mendizabal</i> .
Musika eta gorputz motrizitatea	Unitateko abestia: “Akabo, akabo...!” <i>Joxean Ormazabal</i> eta <i>Imanol Urbieta</i> .
Ingurumena	Elkartasun jolasa.

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurumena-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturteik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-Ikaslearen liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuaren osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 3

IKASLEAREN LIBURUA - 7. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0	 IRAKASLEA	Baliabideen taula	3	239
3		<i>Akabo, akabo...!</i>	6	242
34		<i>Eskerrak behiari</i>	31	267
35		<i>Ikasturteari akabera</i>	31	267
37		Entzunaldia: <i>Goizean</i>	31	267

2. ZIKLO AMAIERAKO HELBURUAK (laburpena)

Ziklo amaierako helburuak bi irizpideren arabera deskribatu dira:

- **Gaitasun nagusiekin** erlazionatuz:

- A. Ulermena
 - A1. Entzutezko ulermena
 - A2. Irakurmena
- B. Adierazpena
 - B1. Ahozko adierazpena
 - B2. Idatzizko adierazpena
- C. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- **Eduki multzoekin** erlazionatuz:

- * Ahozko komunikazioa
- * Komunikazio idatzia
- * Hizkuntzari buruzko hausnarketa
- * Hizkuntzaren gizarte dimentsioa
- * Literatura

2. ZIKLO AMAIERAKO HELBURUAK	GAITASUN NAGUSIAK
AHOZKO KOMUNIKAZIOA	
1. Ahozko azalpenen funsezko ideiak identifikatzea.	A1
2. Ahozko testuetan informazioak aukeratzea.	A1
3. Elkarrizketa eta eztabaidetan, ideiak azaltzea, arrazoitzea eta besteenekin alderatzea.	A1 – B1
4. Eguneroko bizitzako egoera desberdinetan elkarrizketan aritzea.	A1 – B1
5. Ahozko aurkezpen argi eta egituratuak egitea.	B1
IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA	
6. Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak deskodetzea.	A2
7. Testu idatzi sinpleen esanahi globala inferitzea.	A2
8. Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea.	A2
9. Testu idatzi sinpleen esanahi globala sintetizatzea.	A2 – B2
10. Testu idatziak planifikatzea.	B2
11. Testu idatziak sortzea.	B2
HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA	
12. Hizkuntz elementuen ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko ezagutzak erabiltzea.	C
HIZKUNTZAREN GIZARTE DIMENTSIOA	
13. Inguruko hizkuntz errealitatearen ezaugarri nagusi batzuek ohartzea. (4. maila)	C
14. Euskara ohiko komunikazio eremu eta egoeretan erabiltzea.	C - B
LITERATURA	
15. Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea.	A1 – A2 – B2
16. Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea.	A1 – A2

JARDUEREN ANALISIA

1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Hizkuntza Ebaluazioa:

• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ahozko adierazpena</i>
• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>3 (3.2, 3.3, 3.4, 3.5, 3.7, 3.8)</i> <i>4 (4.1, 4.2, 4.3)</i>

Aurreikuspen-estrategiak landu eta hurrak motibatzen asmoz, ikaslearen liburuaren azalaren behaketa eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntz funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazionatuz eta iragartzeari bidea emanez. Elkarrizketa honek, hizkuntzako 3. eta 4. helburuei dagozkien hainbat irizpide behatzeko aukera emango digu. (Elkarrizketan aritzea eta norberaren ideiak azaltzea, arrazoitzea eta besteekin alderatzea).

Hasteko izenburuari erreparatuko diogu:

- *Zer adierazi nahi digu izenburuak?* Izenburu gisa dugun esaldi honen esanahia argitzen saiatuko gara denon artean.

Ondoren, irudiari erreparatuko diogu eta bertan dauden elementuak euren artean izan dezaketen erlazioaz jabetzeko hauei buruz dakigun guztia aipatuko dugu.

Azkenik, gaiaren inguruko galdera egingo diegu:

- *Zer uste duzue landuko dugula gai honetan? Zuen ustez ezer berririk landuko al dugu gai honetan? Zergatik?*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

Oharra: unitate osoan zehar hainbat elkarrizketa egoera egongo dira, beraz, komenigarria litzateke, talde finkoak izatea, txandakatuz ikasle batek bozeramaile lana egitea talde handiari adieraziz hitz egindakoa. Irakasleak hainbat aukera izango du talde txikian ematen den interakzioa behatzeko eta baita ikasle bakoitzak bozeramaile lanetan egindako ahozko adierazpena behatzeko

2. Komikia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.

Hizkuntza Ebaluazioa:

• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena eta Ahozko adierazpena</i>
• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>7 (7.1, 7.3, 7.4, 7.6)</i> <i>3 (3.1, 3.2, 3.4, 3.7, 3.8)</i> <i>4 (4.1, 4.2, 4.3)</i>

Komiki honen lanketa bi helbururekin egingo dugu, bata unitateari sarrera eman eta gaiaren kokatzea, eta bestea, komikiak irekitzen dituen irizpideak aprobetxatuz, ikasleek hizkuntza erabiltzeko duten erraztasuna, aberastasuna eta zuzentasuna behatzea.

Hasteko, tartetxo bat emango diegu ikasleei komikia bakarka irakur dezaten. Adierazi iezaiezue, beti bezala, komikian, hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun, beraz eman iezaiezue behar beste denbora komikia sakonki irakur eta beha dezaten.

Ondoren, hizpide gai izango dituzten galdera sorta emango diegu horien inguruan eta bakarka hausnar dezaten:

- Zer adierazi nahi du “Oporrak gora eta oporrak behera” izenburuak?
- Zein da komiki honen gaia?
- Mei Li eta Xabier pozik daude udalekuetara doazelako. Ba al dakizu zer diren udalekuak eta zer egiten den bertan? Izan al zara inoiz udalekuetan? Konta iezaiezu ikaskideei zure esperientzia.
- Nola uste duzu sentituko dela Maider? Zergatik?
- Zure ustez, nora uste duzu joango dela Kleo oporretan, mendialdera edo hondartzara? Arrazoitu ezazu zure ustea.
- Morgan eta Xarpa etxean geratuko dira oporretan. Zuk zertan emango zenuke denbora Morgan bazina? Eta Xarpa izanez gero?
- Zer dakizu San Joan festei buruz? Adieraz ezazu.
- Zer gertatu zaio Kleori azken bi binetetan? Zergatik? Zuri gertatu al zaizu inoiz? Noiz eta zergatik?

Gero, elkarrizketa sortuko dugu, esan bezala, talde txikian. Bitartean, talde batetik bestera ibil zaitezke talde elkarrizketan ikasleen behaketa egiten eta datuak hartzen.

Talde elkarrizketa bukatzean, talde bakoitzeko kide batek gela osoari adieraziko dizkio hitz egindakoak, bozeramaileen ahozko adierazpenari dagozkien hainbat irizpide behatu ditzakezue, nahi izanez gero.

3. Kanta kantari

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or./CDA, 36. pista

Hasteko, CDA jarriko diegu ikasleei abestia entzunez haren letra eta mezuaz jabe daitezen. Ondoren, “zeri buruzkoa da abestia?” galdera luzatuko diegu eta taldean, horri buruz mintzatuko gara.

Unitatean duten abestiaren letra irakurtzeko tartetxo bat eman ostean, bukatzeko, letra aurrean dugula, CDarekin batera abestia kantatzeari ekingo diogu.

4. Proiektuaren aurkezpena

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.

Talde handian, orrialde horretan gure pertsonaiek esandakoa irakurriz, unitate honetako proiektua zein den argitzen saiaturako gara eta baita erabaki batzuk hartzen ere, hau da, nortzuk gonbidatuko ditugun agerraldira, zein egunetan egingo dugun etab.

Bestalde, orrialde horretako aginduak adierazi bezala, pertsonaiek esandakoaren artean kontraesan bat dago, utzi tartetxo bat ikasleei, talde txikietan, aipatutako kontraesan hori bilatzeko. Ez badira gai, eman iezaiezue beste pista bat, Mei Lik esandakoari erreparatu. Kontraesana hurrengo hau da: ikasturtea bizigabea izanik ezinezkoa da hiltzea. Eman iezaiezue bidea elkarrizketari honen inguruan mintzatzeko, zergatik erabiltzen diren horrelako esaldiak, besterik ezagutzen duten, etab.

5. Ikasnorabidea

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.

Taldetxotan jarrita, ikasleek ikasnorabidea irakurtzeko eta haren interpretazioa egiteko tartea izango dute, esaldi bakoitzak adierazten duena argitzen saiatuko dira. Adibidez: “Lehenaldian dagoen testua orainaldian idatzi”. Honek esan nahi du, aspaldian gertatu den zerbait kontatzen duen testu bat, gaur gertatu izan balitz bezala idatzi beharko dugula.

6. Hilabeteen eta asteko egunen izenak, datak eta egunerokoa

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza</i>	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Idatzizko adierazpena eta Hausnarketa.</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	11 (11.2, 11.4, 11.5, 11.6) 8 (8.3) 12 (12.4)
	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ulermena:</i> <i>- Kontzeptuak gogoratzea</i>
<i>Ingurumena</i>	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ulermena:</i> <i>- Kontzeptuak gogoratzea</i>

Ikasleek, ingurumeneko eduki kontzeptualak diren hilabeteen izenak eta asteko egunen izenak gogoratzen dituzten jakiteko, bi orrialde hauetan zehar dauden jarduerak bakarka osatu beharko dituzte.

Hala ere, papereko jarduera horiez gain, aukera duzue ikasleei bakarkako bestelako ahozko frogatxo bat egiteko, kontzeptu hauek bereganatu dituztela jakiteko, honen antzeko zerbait:

- *Esan iezazkidazu hilabeteen izenak ordenan. Zure unitatean hilabeteen izenak idatzi dituzunean, lehenengoa urtarrila izendatu duzu eta otsaila honen eskumakoa, zergatik ez da otsaila urtarrilaren azpikoa? 28 edo 29 egun dituelako gehienez otsailak...*

- *Nola du izena martxoaren aurreko hilabeteak? Eta atzetik datorrenak?*

- *Zein da bosgarren hilabetearen izena?*

- *Zein dira opor hilabeteak?*

- *Zein da urtearen azken hilabetearen izena? Eta urtearen lehenengo hilabetearena?*

-...

Bestalde, egunerokoari aipamena egiten dioten jarduerak aitzakia hartuta, aste horretan egunerokoa idazteko proposatuko diegu ikasleei. Ikasleek idatzitakoak egunero irakur ditzakezue (egun bakoitzean hainbat haurrena) eta hauetariko batzuei, bertako hitz jakin batzuk azpimarratu edo nabarmendu (hitzaren ortografiari dagozkionak, zein urtean zehar landutako arauekin erlacionatutako bestelako akatsak, maiuskularen erabilera, puntuazio markak, erderakadak, aditzak...) ikasleek euren egunerokoen berrikuspina egin eta zuzenketak bideratzeko. Ikasleek hiztegia erabili ahal izango dute hitz horietan egoki ikusten dituzten zuzenketak egiteko.

Jarduera honen bidez, testu idatzi simple bat ekoizteko bete beharreko hainbat irizpide behatzeaz gain, hiztegia den informazio iturria eraginkortasunarekin eta zuzentasunerako baliabide bezala erabiltzen duten behatu ahal izango duzue.

7. Ipuina: “Txalopin txalo”

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 99. orrialdetik 102.era

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><i>Gaitasun nagusia</i><i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Irakurmena</i> 6 (6.1, 6.3,6.4) 7
-------------------	---	--

Ikasleek ipuina bakarka irakurri aurretik, ipuineko hainbat hitz eta esamolde argituko ditugu talde handian, elkarrizketa bidez eta beharrezkoa izanez gero, hiztegira joz.

- *Ipuineko pertsonaiak hurrengo esamoldea erabiltzen du, “Ematen dut!” bere amaren igarkizuna ezin asmatu zebilela. Zer uste duzue esan nahi duela horrekin? Amore ematen dut! esalditik dator, esamolde hori, laburtua dago erabileraren poderioz. Gaur egun toki gutxitan entzun ahal izango dugu eta berreskuratu nahian ipuinean agertzen da. Argitu ezazue esamolde honen esanahia eta bultzatu ikasleak euren jolasetan erabiltzera, gure hizkuntzako ondare bat berreskuratzeko bidea emanaz.*

- *Lihoa, linoa. Galde iezaiezue ea ezaguna duten hitz hau. Pistak emanaz ez baldin badute asmatzen honen esanahia, amore eman ostean, *ematen dut!* esamoldea erabilia, hiztegira jo dezakezue.*

- *Beldar hitza ere ezezaguna izan daiteke hainbat ikaslerentzat, hau ere argitu. Beldarra tximeleta-larba da.*

- *Ume hanka-gorria, jaiο berri edo haur txikiei esaten zaie.*

Elkarrizketa bukatu ondoren, tarte bat emango diegu ikasleei ipuina lasai irakurtzeko. Bukatzen dutenean, hor beheko galdera sorta idatziz erantzungo dute, bakarka. Galdera sorta hau ipuinaren ulermen globala behatzeko erabiliko dugunez, bukatzen dutenean jaso egingo dugu.

1. Honako esaldi hauetatik zeinek adierazten du “Txalopin txalo” testuaren gaia eta asmo nagusia?

- a) Ipuin bat idazteko ideiak nola sortu azaltzen du, eta horretarako jarraitu beharreko urratsak eta erabili beharreko materiala deskribatzen ditu.
- b) Haur txiki batek behar dituen zainketak (titia eman, haizeak botatzen lagundu, ipurdia garbitu) zeintzuk diren azaltzen du.
- c) Ama batek bere semeari ipuin baterako ideiak sortzen nola laguntzen dion kontatzen du.
- d) Txina zaharreko zeta-beldarra mundu zabalean nola barreiatu zen azaltzen du.

2. Beheko testu horietatik zein da...?

Ipuina:

Igarkizuna:

Jolas kanta:

Instrukzio edo argibide-testua:

Azalpen edo informazio-testua:

a)

Duela 5.000 urte txinatarrek zeta-tximeletak hazten zituzten. Tximeleta honen beldarrek edo larbek zetazko zorroa egiten dute bertan sartu eta tximeleta heldu bihurtzeko. Txina zaharreko nekazariak zorro horiek erabiliz zetazko haria egiten ikasi zuten. Zetazko haria oso material preziatua zen garai haietan, eta baita gaur egun ere, oihalak eta jantziak egiteko.

b)

Goizean zomorro itsusi,
eguerdian zuhaitzen hostoz bizi,
arratsaldean harizko babesean,
gauerako hegan aire zabalean.

c)

Haur txikiak titia hartu ondoren:

1. Besoetan hartu eta ahoz behera jarri.
2. Bizkarrean kolpetxo batzuk eman.
3. Korrokada baten bitartez tripako haizeak bota arte itxaron.

d)

Txalopin txalo,
txalo eta txalo!
Katutxoa mizpiraren
gainean dago.
Badago, bego,
Txalito txalo!
Zapatatxo berriari
begira dago!

e)

Aspaldi-aspaldi, ba omen zen zure edadeko neskato bat Goierrin, eta ez omen zuen inoiz itsasoa ikusi. Amak, aldiz, ikusi omen itsasoa behin, eta alaba beti galdezka aritzen omen zitzaion: “Nolakoa da itsasoa, ama; nolakoa da itsasoa?”. Ama aspertuxe zeukan alaba galdeketari hark, eta egun batean...

3. Kotetok dio: “Kokoteraino nago!”. Zer adierazi nahi du horrekin?
- a) Lepondoko minez dagoela denbora luzean idazten aritu delako.
 - b) Idazlan bat egiteko agindu diotela.
 - c) Amak anaia txikiari kasu handiagoa egiten diola eta, ez dagoela konforme.
4. Zer esan nahi du testu honetan “xeloti” hitzak?
- a) Xelebrea, umoretsua.
 - b) Jeloskorra, zeloak dituen.
 - c) Lotia eta alferra, eginbeharrak gerorako uzten dituen.
5. Zer ote da “lihoa”?
- a) Landare bat.
 - b) Loreontzi mota bat.
 - c) Itsasoari begira dagoen leihoa.
6. Bigarren igarkizunaren erantzuna asmatu ezinik, “Ematen dut!” esaten du Kotetok. Zer adierazi nahi du?
- a) Tontoa ematen duela, ez baitzaio ezer bururatzen.
 - b) Amore ematen duela edo errenditzen dela.
 - c) Asmatu duela; bururatu zaiola erantzun zuzena.
7. “Xuban txikia altzoan utzi zion amak Kotetori”. Zer ote da “altzoan” uztea?

.....

8. Adieraz itzazu hitz gutxitan “Txalopin txaloko” ipuineko gertakizun nagusiak.

.....

Bukatzeko, taldean, ipuinaren irakurketa ozena egingo dugu. Ikasle jakin batzuk, txandaka, ipuinaren zatitxo bat irakurriko dute ozenki eta dekodifikazioari dagozkion hainbat irizpide behatuko ditugu. Gero, idatziz emandako galderak ahoz erantzuteari eta aukeraketaren justifikazioa egiteari ekingo diogu.

8. Irakurzaletasuna

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><i>Gaitasun nagusia</i><i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Irakurmena, Ahozko adierazpena</i> <i>4 (4.1, 4.2, 4.3)</i> <i>16 (16.1, 16.2)</i>
-------------------	---	---

Ikasturte honetan zehar, gelako liburutegian egindako dinamikek emango digute behar dugun informazioa irakurzaletasunarekin zerikusia duten irizpideak baloratzeko. Horretarako bi irizpide hauen inguruko informazioa jaso beharko dugu:

- Irakurritako liburuen erregistroa: ikasleak liburutegiko ipuinen bat etxera irakurtzeko maiztasunez eramaten duen edota herriko liburutegiko ipuinak maiztasunez irakurtzen dituen aztertuz.
- Irakurritakoari buruzko iritzien azalpena eta justifikazioa: gelan egindako jarduera bideratuak, nahiz irakasleak erregistroak behatuz egindako iritzi mailako galderen erantzunak behatuz.

Bigarren irizpide honi dagokionez, unitateak proposatutako jarduerak ere aukera eman diezazueke ikasle jakin batzuei buruzko datuak hartzeko.

Talde handian, irakurzaletasunari dagokion jarduerako hiru aginduak irakurriko ditugu banan-banan eta bakoitzaren inguruan elkarrizketa sortuko dugu.

Aurten irakurritako ipuinak hainbat izan dira, bada, gogora ekarriko ditugu eta baita bakoitzari buruzko gure iritzi kritikoa eman ere, ipuinak gure gustukoak izateko bete behar dituzten baldintzak aipatuz batera.

Bukatzean, talde handian, ezagutzen ditugun ipuinen zerrenda idatziko dugu arbelean, ikasleek udan irakurriko duten ipuina edo ipuinak aukera ditzaten. Jarduera hau egiteko, ikasleei esan diezaiekezue, etxeko liburutegian begiratzeko edota herriko liburutegira joateko eta informazioa biltzeko. Talde txikitan egin dezakete, euren adinerako egokia izan daitekeen ipuinen zerrenda osatu eta baita modu laburrean zeri buruzkoa den apuntatu ere, gero, gelakideei adierazteko. Eurek adierazitakoaz gain zuek ere osa dezakezue aukerako ipuinen zerrenda hori.

Ikasle bakoitzak zerrenda horretatik liburu bat aukeratu beharko du eta udan irakurri ondoren, haren laburpen tentagarria egin. Ekar ezazue gogora zer den laburpen tentagarria, nola egiten den eta agian, komenigarria izango litzateke, txantilo moduko bat prestatzea, ikasleek jarduera hori udan osatzeko konpromezua har dezaten.

Txanela proiektuak, udan, liburu bakar baten irakurketa eta laburpen tentagarria egiteko proposamena luzatzen badu ere, utz ezazue argi, ikasleek nahi adina liburu irakur ditzaketela uda honetan, eta hau esanez, taldean aipa itzazue irakurtzearen alde baikorrak eta abantailak, ikasleak ipuin bat baino gehiago irakurtzera anima daitezten.

9. Ipuina idazten

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Gaitasun nagusia</i>• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Idatzizko adierazpena eta Hausnarketa.</i> <i>10 (10.2, 10.3, 10.4)</i> <i>11 (11.1, 11.2, 11.3, 11.4, 11.5, 11.6,)</i> <i>12 (12.4, 12.5)</i>
-------------------	---	---

Taldean, ipuinari buruz dakigun guztia gogora ekarriko dugu, horretarako gelan ipuinekin zerikusia duen eduki berri bat landu izan dugun bakoitzean osatu ditugun paneletan arreta berezia jarriko dugu, hala nola; denbora antolatzaileak, adjektiboak...

Ondoren, ikasle bakoitzak ipuin bat idatzi beharko du, planifikatu, testualizatu, berrikusi eta editatu. Azken produktua ezezik, prozesu guztian emandako urratsak behatuko ditugu. Prozesu honen lehen urratsa, planifikazioa, taldean argituko dugu, hau da, zein den ipuin honen xedea eta zertarako izango den. Ipuin honen ekoizpen-prozesu guztia eta baita azken produktua ere irakasleak behatu egingo dugunez, ikasleei argi adierazi behar diegu. Planifikazioari dagozkion ideiak biltzeko egun pare bat emango dizkiegu ikasleei, etxean galdetuz, liburuetan begiraturaz, lagunekin hitz egingez, etab. ideiak biltzen joan daitezten, beranduago, irakasleak emango dien txantiloian gidoia idatz dezaten. Gidoia idatzi eta handik egun batera ipuina garatzeko eskatuko diegu. Ipuina garatu osteko egunean, ipuinaren zirriborroa arretaz behatzeko eta egoki ikusten dituzten zuzenketak egiteko aukera izango dute, hitzen ortografia hiztegian begiraturaz, gelako ipuinen txokoan dauden oharrei behatuz... Berrikusketa eta zuzenketak egin osteko egunean, edizioa martxan jarriko dute, ipuina irudi polit batekin apainduz. Ipuina editatuta dutenean, bildu egingo ditugu eta egindako lana behatu ondoren, euren egileei bueltatuko dizkiegu.

Ipuin guztiak editatuta daudenean, gelan, hainbat unetan, ipuin irakurketa jarriko dugu martxan. Jarduera honek testu idatziaren dekodifikazioari (hizkuntzako 6. helburua) dagozkion hainbat irizpide behatzeko aukera eman diezazueke.

10. Artelanak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Gaitasun nagusia</i>• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Ahozko adierazpena</i> <i>3 (3.1, 3.2, 3.4, 3.5, 3.7, 3.8)</i> <i>4 (4.1, 4.2, 4.3)</i>
-------------------	---	--

Ikasturtean zehar behatutako artelanen inguruko talde elkarrizketa garatuko dugu. Adierazpen plastikoa egiteko aukera izango duzue azken bi jardueretan.

11. Ingelesa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 14. eta 15. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><i>Gaitasun nagusia</i><i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Ahozko adierazpena</i> 3 (3.2, 3.3, 3.4, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2) 5 (5.3, 5.4, 5.5)
-------------------	---	---

Talde lana da ziklo honetako eduki eta helburu garrantzitsu bat eta jarduera honek aukera ederra eman diezazueke hori behatzeko: taldekako jardueretan parte hartuz, eraikiz, erantzunkizun eta elkartasunezko jokabidea hartuz, helburu komun arabera ekarpen propioak eta besteenak baloratuz eta jokabide demokratikoaren oinarritzko printzipioak errespetatuz aritzen da.

Planning:

The aim here is to look back through the previous six units and prepare a poster to present to the English teacher. The pupils need to know what they are going to do and whom they are going to work with before the poster-making session, so that they come with their appropriate books and any extra material. You need six groups; one to deal with each unit. Ideally the groups would be made up of people who enjoyed that unit most. You will need one session to prepare the posters and another session to present them.

Procedure:

Show them a piece of card (the size of the poster they will have to fill in) and brainstorm what they could include on their poster. Show them the picture on page 15 of their books, where the children are preparing a poster.

- The title
- Pictures
- Short explanations (with pictures/illustrations/handicrafts) of:
 - * Interesting things they learnt
 - * Special activities they did
 - * Funny, sad things
 - * etc.
- Names of the authors
- ...?

Go around encouraging and helping. Model/help with the language they will need for their presentation.

e.g. *This is our poster. It is about China.*
This is a Chinese dragon and this is the Great Wall.
Chinese rivers are very long and Chinese mountains are very high.
This is Chinese writing.
We like Chinese food. We like rice and noodles.
Etc.

Praise their efforts and make comments to show your interest in the content of their posters.

e.g. *I didn't know that...*
That's very interesting...

Jarduera hau ingelesez egitea proposatzen badugu ere, poster handi hauek bukatzean, ikasleek tutoreari ingelesean egindakoa ahoz adieraziko diote. Talde bakoitzeko bozeramaile bat egon daiteke eta hark emango dio irakasleari egindakoaren berri. Irakasleak berak aukeratu ditzake bozeramaileak, haien ahozko aurkezpeneko hainbat irizpide behatzeko.

12. Gure txoko kuttuna

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. eta 17. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Gaitasun nagusia</i> • <i>Helburuak eta irizpideak</i> 	<i>Ahozko adierazpena eta Irakurmena.</i> 3 (3.2, 3.3, 3.4, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2) 5 (5.3,5.4, 5.5) 8 (8.1, 8.2, 8.3)
<i>Ingurumena:</i>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Gaitasun nagusia</i> 	<i>Ulermena</i> - <i>Ingurumen sozialeko elementuak izendatu</i> - <i>Elkarbizitzarako oinarritzko arauak eta printzipioak identifikatzea eta baloratzea.</i>

Bi orrialde hauetan, kurtso honetako lehenengo unitatean landutako hainbat alderdi behatzeko aukerako jarduerak dituzue. Unitateko jarduerak ebaluatzen tresna bezala erabiltzeko asmoa baldin baduzue, lehenengo unitatean landutakoa gogora ekarri eta aldeztu aurretik errebaso txiki bat egin, urte hasieratik hona denbora luzea pasatu baita.

Errebasoa egiteko ikasleak talde txikiak osatuko dituzte eta ikasturte honetako lehenengo unitatea aurrean dutela, elkarriketa sortuko dugu, unitate horretan ikasitakoa gogora ekartzeko. Hau egin bitartean, zarpigarren unitateko ikasnorabidean gai horri dagokion blokearekin erlazionatzea ere garrantzitsua da. Ondoren, talde bakoitzeko ikasle batek bozeramaile lana egin dezake eta talde handiari, talde txikian hitz egindakoaren berri eman. Bukatzean, ikasleek unitateko jarduerak bakarka osatzeari ekin diezaietela. Jarduera honen bidez, ikasleek ingurumeneko eduki kontzeptualak bereganatu dituzten behatu dezakezue.

Hiztegiaren arabera ordenatzen jakiteak eta hiztegiaren erabilpen zuzenak bide emango die ikasleei mapan hiriburuak kokatzeko jarduera zuzen egin dutela bermatzeko edota beharra ikusiz gero, zuzenketak egiteko. Prozesu honen behaketa eginaz, ikasleek eskuera jarritako hiztegi entziklopedikoa eraginkortasunez erabiltzen dakiten, eta, irakurketa helburuari erantzuteko informazio garrantzitsua aurkitzen eta aukeratu dakiten beha dezakezue.

Orrialde horretako azken jardueran, elkarbizitzaren arauen inguruko baieztapen baten aldeko argudioak idatziz emateko eskatzen zaie. Idatzi ostean, talde handian, elkarriketa sor dezakezue, modu horretan, ikasleak ahoz bere ikuspegi pertsonala azaldu eta arrazoitzen duen beha dezakezue.

13. “Zure herriko bertsoa” eta “Txulalai” dantza

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 3. pista

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Gaitasun nagusia</i>• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Irakurmena eta Ahozko adierazpena.</i> <i>15 (15.1)</i>
-------------------	---	---

Kurtso bukaerako emanaldirako “Txulalai” dantza entseatzeko proposamenari helduz, une hau aprobetxatuko dugu, ikasturte honetan zehar ikasitako dantza eta koreografia guztiak gogora ekarri, dantzatu, eta agerraldian dantzatuko duguna aukeratzeko. Honez, gain, kurtso hasieran ikasitako “Gure herriko bertsoa” ere gogora ekarriko dugu eta denon artean abestu.

14. Egipto: Nilo ibaiaren oparia

Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or./6. lan koaderno, 53. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Gaitasun nagusia</i>• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Irakurmena.</i> <i>8 (8.1)</i>
-------------------	---	--------------------------------------

Ezertan hasi aurretik “Egipto: Nilo ibaiaren oparia” gaian landutakoa gogora ekarri denon artean. Eduki kontzeptualez gain, prozedurazkoak eta jarrerazkoak ere gogora ekarriko ditugu, baita ingurumenekoak, arte hezkuntzakoak eta hizkuntzakoak ere (grafikoak, zer diren eta zertarako erabiltzen diren; deskribapenak, hauen inguruan ikasitakoa; etab). Berritua ere aukera duzue, ikasle jakin batzuei, elkarrizketari dagozkion hainbat irizpideren behaketa egiteko.

Ondoren, tarte bat emango diegu ikasleei orrialde horretako testua bakarka irakurri eta jarduerak osa ditzaten, bai unitatekoa, baita lan-koadernokoa ere.

Jarduera bukatu ostean, ikasleek, bakarka, unitateko testua aurrean dutela eta baita lan-koadernoan egin berri duten jarduera ere, irakasleari erantzunak justifikatu beharko dizkiote.

15. Egipto: barrazko grafikoa

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or.

Ebaluazioa:

<i>Ingurumena:</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ulermena:</i> <i>-Ingurumen sozialeko elementuak konparatu, erlazionatu eta sailkatu.</i>
--------------------	---	---

Ikasleek bakarka orrialde horretan eskatzen zaien barra-grafikoa osatu eta galderari erantzungo diote.

16. Pertsonaia baten deskribapena

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Gaitasun nagusia</i>• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Idatzizko adierazpena eta Hausnarketa.</i> <i>10 (10.2, 10.3, 10.4)</i> <i>11 (11.1, 11.2, 11.3, 11.4, 11.5, 11.6,)</i> <i>12 (12.4, 12.5)</i>
-------------------	---	---

Jarduera honetan, ikasleei testu bat ekoizteko eskatzen zaie, deskribapena hain zuzen ere, idatziz eta bakarka. Deskribatu beharreko aukerako pertsonaia aski ezaguna dute, bai itxuraz zein izaera aldetik. Hala ere, jarduera hau bakarka garatzen hasi aurretik, deskribapenaren egitura, atal bakoitzean adierazi behar dena, eta deskribapenaren bestelako ezaugarri eta elementu nagusiak gogora ekarriko ditugu.

Horrez gain, edozein testu idatzitan, hizkuntza sistemari dagozkion hainbat elementuren erabilpenari buruzko erreposoa ere egingo dugu, hala nola, maiuskulen erabilpena, hitzen ortografia, letraren ulergarritasunaren garrantzia, marjinak... Gero, taldean, pertsonaia bakoitzari buruz mintzatuko gara, izaera eta itxurari dagozkion ezaugarriak eta hauek adierazteko erabiliko genituzkeen adjektiboak aipatuz.

Ikasleek idatzitako deskribapenak irakur ditzakezue eta hauetariko batzuei, bertako hitz jakin batzuk azpimarratu edo nabarmendu; hitzaren ortografiari dagozkionak zein urtean zehar landutako arauekin erlazionatutako bestelako akatsak, maiuskulen erabilera, puntuazio markak, erderakadak, testu motari dagozkion berezko ezaugarriak, aditzaren denbora... ikasleek euren deskribapenen berrikuspena egin eta zuzenketak bideratzeko.

17. “Lore bakoitzak bere arantza”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 10. pista

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none">• <i>Gaitasun nagusia</i>• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Irakurmena eta Ahozko adierazpena.</i> <i>15 (15.1)</i>
-------------------	---	---

“Lore bakoitzak bere arantza” da proiekturako proposatzen zaizuen bertsoa. Talde handian abestu, dramatizatu eta entseatu emanaldi egunerako. Ikasleren batek oraindik buruz ez badaki, eman iezaiezu aukera buruz ikasteko, gelan bertan nahiz etxeko jarduera bezala.

18. Elkartasun jolasa: “Hartu-eman”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or.

Ebaluazioa:

Hizkuntza:	<ul style="list-style-type: none">Gaitasun nagusia	Irakurmena
	<ul style="list-style-type: none">Helburuak eta irizpideak	8 (8.1, 8.2)
Ingurumena	<ul style="list-style-type: none">Gaitasun nagusia	Adierazpena: - Taldeko jardueretan parte hartu, besteak errespetatuz, ardurak hartuz eta elkartasunez jokatzuz.

Elkartasun jolas guztietan jarraitzen ditugun urratsak egin aurretik, ikasleek, bakarka unitatean bertan duten elkartasun jolasa irakurriko dute eta ondoren, hor beheko jarduera bakarka osatu beharko dute. Beraz, jar ezazue jarduera folio batean eta eman iezaiezue ikasleei osa dezaten. Jarduera honen bidez, testu idatzi batean ulermen zehatzari dagozkion irizpide batzuk behatzeko aukera izango duzue.

Izena:

Data:

Zure ustez, zein instrukzio zerrenda dagokio unitatean irakurri berri duzun jolasari?
Zalantzaren bat sortzen bazaizu, irakurri arretaz berriro ere jolasaren azalpena.

A aukera

1. Biribilean jesarri.
2. Elkarri eskutik heldu.
3. Ezkerreko lagunaren ezaugarri on bat pentsatu.
4. Ezkerreko lagunari hartuko zeniokeen ezaugarria adierazi.
5. Zeure ezaugarri on bat pentsatu..
6. Eskuineko lagunari emango zeniokeen zure ezaugarria adierazi.
7. Ondoko lagunari eskerrak eman.

B aukera

1. Biribilean jesarri.
2. Elkarri eskutik heldu.
3. Ezkerreko lagunaren ezaugarri on bat pentsatu.
4. Zeure ezaugarri on bat pentsatu.
5. Txandaka ezkerreko lagunari hartuko zeniokeen ezaugarria adierazi.
6. Eskuineko lagunari emango zeniokeen zure ezaugarria adierazi.
7. Ondoko lagunari eskerrak eman.

Adieraz ezazu zure hitzekin zergatik aukeratu duzun bat eta ez bestea.

.....
.....
.....
.....

Bukatzean, elkartasun jolasetan aritzean ohituraz ematen ditugun urratsei ekingo diogu.

Jolas honek, nolabait, elkartasun jolasei bukaera emango dienez, jolastu ondoren ez dugu elkarrizketarik sortuko jolasaren inguruan. Honen ordeztu, kurtsoan zehar egindako elkartasun jolasak gogora ekarriko ditugu eta hauen inguruko elkarrizketa sortuko dugu, liburuan dauden galderak jarraituz.

- Gogoratzen al dituzu orain arte egindako elkartasun jolas guztiak?
- Zein da denetatik gehien gustatu zaizuna? Eta gutxien gustatu zaizuna? Zergatik?
- Elkartasun jolasa egin behar duzula dakizunean, nola sentitzen zara? Gustura ibiltzen al zara jolasean?
- Elkartasunez jolasten aritu zaretenean, zein izan da, orokorrean, izan dituzun zailtasunik handienak?
- Jolas horien bidez ikasi al duzu zerbait? Zer?

19. Kontzeptu-mapa: Garuna

Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.

Hizkuntza:	• Gaitasun nagusia	Irakurmena eta Idatzizko adierazpena
	• Helburuak eta irizpideak	9 (9.3)
Ingurumena	• Gaitasun nagusia	Ulermena: -Kontzeptuak gogoratzea.

Ezertan hasi aurretik, “Urte askoan txapela kaskoan” gaian landutako edukia gogora ekarriko dugu, zer ikasi genuen gai horretan (kontzeptu, prozedura zein jarrerazko edukiak), zein proiektu burutu genuen, etab. Errepaso moduko hau egiteko 3.3 unitatea aurrean izatea komenigarria litzateke. Gogoratu, hizkuntzako 3., 4. eta 5. helburuari dagozkien hainbat irizpide behatzeko aukera duzuela.

Unitatean proposatutako jardueraren bidez, ikasleek, testu bateko informazioa ulertu eta kontzeptu-mapa bidez adierazteaz gain, haren interpretazioa egin beharko dute, bertako informazioa ahoz eta zuzen adieraziz. Beraz, ikasleek bakarka orrialde horretan dagoen kontzeptu-mapa osa dezatela, eta ondoren, irakur diezagutela. Gogora iezaiezue ikasleei kontzeptu-mapa ez dela irakurtzen idatzita dagoen bezala, esaldiak egituratu egin behar direla.

20. Definizioak

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. eta 23. or.

Hizkuntza:	• Gaitasun nagusia	Ahozko adierazpena
	• Helburuak eta irizpideak	5 (5.3, 5.5)
Ingurumena	• Gaitasun nagusia	Ulermena: - Kontzeptuak gogoratzea eta erlazionatzea. Adierazpena: - Kontzeptuak deskribatzea.

Ikasleek bakarka mihiaren definizioen artean zuzenena aukera dezatela. Ondoren, hurrengo orrialdeko azalpen-testua irakurri, eta belarria eta begia organoak idatziz defini ditzatela. Gero, berriro ere azalpen-testua behar beste aldiz irakurri, ondo

ulertu arte, eta binaka jarrita euren lagun bati ahoz eta euren hitzekin adierazten saia daitezela. Saiakera horietan, aukera izango dute ikusteko zein zailtasun dituzten eta nola gainditu zailtasun hauek. Bukatzean irakaslearengana jo eta mihiaren definizio zuzenaren aukeraketa argudiatu beharko dute. Gero, azalpen-testuko informazioa ahoz adieraziko digute (ahozko aurkezpenaren banakako behaketa egin dezakezue, berriro ere). Bukatzeko, belarria eta begiaren definizioak irakurriko dizkigute eta guk egindako galderei erantzun.

Jarduera honen bidez, ikasleak ingurumeneko eduki kontzeptual hauek bereganatu dituen ikusteaz gain, hizkuntzari dagokionez, definizioen aukeraketa jarraitzen dituen irizpideak, eta, definizioak osatzerakoan erabili dituen estrategien (goiko testutik informazio zehatza aukeratu eta birmoldatu definizio berria egiteko) berri izan dezakegu.

21. Prebentzio kanpaina

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or./CDa, 12. pista

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ahozko adierazpena</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	3 (3.2, 3.3, 3.4, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2)

Talde handian elkarrizketa sortuko dugu, prebentzio-kanpaina zentzumenez gainera gorputzeko beste atal batzuk zaintzeko emandako aholkuak gogora ekartzeko, aholku horiek praktikan jarri ditugun adierazteko, hauen baliagarritasunaz hitz egiteko, etab. Talde elkarrizketa honetan, aukera duzue elkarrizketari dagozkion hainbat irizpide behatzeko: ikasleek euren inizatibaz parte hartzen duten, euren iritzia adierazi eta justifikatzen duten, elkarrizketetan ematen diren giza komunikazioko oinarrizko arauak errespetatzen dituzten (txandak, errespetua...), ideiak argitasunez eta zuzentasunez adierazten dituzten, hitz eta esamolde egokiak erabiltzen dituzten, esandakoak gaiarekin bat datozen edo ez, iritzia nola argudiatzen dituzten etab.

Ez ahaztu, gai honi dagokion “San Petrike” dantza entseatzea emanaldirako!

22. Zehar galderak

Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka

Materiala: 6. lan-koaderno, 54. or.

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Hausnarketa</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	12 (12.3)

Hasteko, talde handian ZER? galderari erantzuteko ezagutzen ditugun erak gogora ekarriko ditugu, jolas antzeko bat eginaz. Lau edo bost laguneko taldetxotan biribilean jarrita, batek esaldi bat esango du eta hurrengoak, gorra balego bezala, Zer? galdetuko dio eta gainontzeko guztiek galdetzaileari zeharkako esaldia erabiliaz erantzungo diote. Hurrengo esaldia, gorra izan den horrek esan beharko du, eta horrela jarraituko dugu bost hamar minutuz, txandak errespetatuz. Bukatzean ikasle bakoitzak bere lan-koadernoko jardura egingo du.

23. Olerkiak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.

Taldean, jarduera irakurri eta bere garaian egindako olerkiak gogora ekarri ondoren, ikasle bakoitzak bere olerkia osatzeari ekingo dio. Bukatzean, talde handian, ikasle bakoitzak bere olerkia errezitatuko du.

24. Erranak erran

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.

Hizkuntza:	<ul style="list-style-type: none">Gaitasun nagusiaHelburuak eta irizpideak	Irakurmena 15 (15.3)
------------	---	-------------------------

Unitateko jarduerarekin hasi aurretik, ondoren duzuen jarduera, folio batean jarri eta eman iezaiezue ikasleei bakarka osa dezaten.

Izena: Data:

Irakur itzazu ondorengo esaera eta esamoldeak eta beraien esanahiaren inguruan hausnartu ondoren, aukeratu beherago deskribatzen den egoera bakoitzari dagokiona.

ZER IKUSI, HURA IKASI!
EDER ALA ITSUSI, ZEIN BEGIK IKUSI!
TXIMINOA GORAGO, IPURDIA AGERIAGO!
ZOZOAK BELEARI IPURBELTZ!
ETXEAN OTSO, KALEAN USO!
AMUARRAINAK BEGI BI, SEI EZKAILUK HAMABI!

Egoerak:

1.- Mainerrek beti esaten dio Xabierri bere gelara sartu aurretik atea jotzeko, berak berriz, Xabierren gelara sartzeko ez dio inoiz baimenik eskatzen.

.....

2.- Mikelek berak bakarrik egin nahi izan du auzoko kaleei buruzko ikerketa, ez du inoren laguntzarik onartu. Bere taldekideek, berriz, elkarrekin egin dute lan eta ikerketa arinago eta hobeto bukatu dute.

.....

3.- Aitor zineman izan da eta ikaragarri gustatu zaio ikusi duen pelikula. Berarekin joan den laguna pelikula bukatu aurretik asper-asper eginda atera da.

.....

Aurreko jarduera bukatzean, egindako lana batu eta ikasleek binaka edo talde txikian aukeratutako esaera edo esamoldea entseiatu ostean, talde handian egoerak dramatizatzeari ekingo diogu.

“Xangai Xian Xi” da proiekturako proposatzen zaizuen abestia. Talde handian abestu, dramatizatu eta entseatu emanaldi egunerako. Ikasleren batek oraindik buruz ez badaki, eman iezaiezu aukera buruz ikasteko, gelan bertan nahiz etxeko jarduera bezala.

25. Ideia nagusia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.

Esan iezaiezu ikasleei, Txinari buruzko azalpen-testutxo bat idatzi behar dutela unitatean bertan, nahiz folio batean, eta horretarako, orrialde horretan agertzen diren eta azalpen-testurako eurek egoki ikusten dituzten esaldiak aukeratu eta aprobetxatu ditzaketela eta nahi izanez gero ikasi duten bestelako informazioarekin osatu.

26. Diktaketa: lehenaldia eta orainaldia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: 6. lan-koadernoan, 55. or.

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Hausnarketa</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>12 (12.1, 12.3, 12.5)</i>

Jarduera hau egin aurretik, hizkuntzari dagokion eta ikasturte honetan ikasi ditugun hainbat arau ortografiko talde handian gogora ekarri. Gero, ikasle bakoitzak bere lan-koadernoko jarduera osatzeari ekin diezaiola. Bukatzean ikasleek euren koadernoan diktaketa idatziko dute.

27. Ziklograma

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or.

Ingurumena:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ulermena:</i> <i>-Ingurumen sozialeko elementuak konparatu, erlazionatu eta sailkatu.</i>

Ikasleek bakarka orrialde horretan eskatzen zaien ziklograma osatu eta galderari erantzun diote.

28. Puntuazio ikurra/txiste saioa

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or./Irakurgaiak 3, 103. or.

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Hausnarketa eta Ahozko adierazpena</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	12 (12.2) 15 (15.2)

Ikasleek bakarka unitateko jarduera osatzeari ekingo diote. Ondoren, irakurgaietako txisteak irakurriko dituzte eta gero, talde handian txiste kontaktari ekingo diogu.

29. Aire: testuen ulermena

Lan egiteko era: Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or.

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ahozko adierazpena eta Irakurmena</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	3 (3.2, 3.3, 3.4, 3.7, 3.8)
		4 (4.1, 4.2)
		5 (5.3,5.4, 5.5)
8(8.1, 8.2)		

Hasteko, taldetxotan jarrita, airearen unitatea aurrean dutela, ikasleek unitate horretan ikasitakoa gogora ekarriko dute. Elkarrizketa egoerari dagozkion hainbat irizpide behatzeaz gain, bozeramaileak talde handiari adierazten badizkio talde txikian esandakoak, hainbat ikasleren ahozko aurkezpenaren behaketa ere egin dezakezue. Ondoren, ikasleek, bakarka, unitatean bertan duten jarduera osatu beharko dute, azalpen-testu batean informazio zehatza bilatu eta galderak erantzun. Jarduera honek, irakurmenaren behaketa egiteko aukera ematen du.

30. “Olatu berri” abestia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 27. pista

Ebaluazioa:

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena.</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	15 (15.1)

“Olatu berri” abestia taldean gogora ekarri eta abestuko dugu. Buruz ez dakiten ikasleei ikasteko aukerak eman diezazkiezue.

31. Argibide-testua

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Idatzizko adierazpena, Ahozko adierazpena eta Hausnarketa</i>
	<ul style="list-style-type: none"><i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>11(11.1, 11.2, 11.3, 11.4, 11.5, 11.6) 12 (12.5) 5 (5.3,5.4,5.5)</i>

Ikasleek bakarka, unitatean bertan proposatzen zaien argibide-testua osatuko dute bertan agertzen diren irudiak behatuz.

Gero, lau laguneko talde txikitan jarrita, urte honetan zehar egindako esperimenduak gogora ekarriko dituzte. Ikasle jakin baten ahozko aurkezpenaren behaketa egin nahi izanez gero, ikasle horrek, talde txikian gogora ekarritako esperimenduetako bat ahoz adieraz dezake.

32. Animaliak sailkatzen

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or.

<i>Ingurumena:</i>	<ul style="list-style-type: none"><i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ulermena: - Ingurumen naturaleko elementuak konparatu, erlazionatu eta sailkatu.</i>
--------------------	---	---

Ikasleek bakarka proposatzen zaien jarduera osatu beharko dute. Bukatzean talde handian, jarduera osatzeko erabilitako estrategien inguruan mintzatu zaitezke.

33. Azalpen-testua: behia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 31. or.

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena</i>
	<ul style="list-style-type: none">	<i>8 (8.1,8.2)</i>

Ikasleek, bakarka, unitatean bertan duten jarduera osatu beharko dute, azalpen-testu batean informazio zehatza bilatu eta galderak erantzun. Jarduera honek, irakurmenaren behaketa egiteko aukera ematen du.

34. Abestia: Eskerrak behiari

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 30. pista

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena eta Ahozko adierazpena.</i>
	<ul style="list-style-type: none"><i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>15 (15.1)</i>

“Eskerrak behiari” abestia gogora ekarri eta denon abestuko dugu. Nahi izanez gero, keinu jakin batzuk asma ditzakezue emanaldian abestia dramatizatzeke.

35. Bertsoa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 104. or./CDa, 36. pista

Ikasleei irakurgaietako bertsoa irakurtzeko tartetxo bat eman ondoren, CDarekin batera abesteari eta gozatzeari ekingo diogu. Nahi izanez gero, buruz ikasi eta emanaldiaren bukaeran abestu dezakezue.

36. Olerkia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Irakurgaiak 3, 105. or.

Tartetxo bat emango diegu ikasleei irakurgaietako olerkia irakurriaz goza dezaten.

37. Entzunaldia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa

Gure konpositoreen txokoa + Kurtso osoaren bisualizazioa + elkarrizketa

Hasteko beti bezala, konpositore eta obraren inguruan mintzatuko gara. Edvard Grieg. Peer Gynt Suite N.1, Op. 46. "Goizean" 3.42m.

Grieg, Edvard. Konpositore erromantiko norvegiarra (Bergen, 1843-1907). Norvegiako folklore nazionala, natura eta bertako gizon-emakumeek izan zituen iturburu. Piano-kontzertua eta Ibsen-en Peer Gynt antzerkirako musika (1875) izan ziren bere obra ezagunenak.

Kurtsoari bukaera emateko, urtero egiten dugun bezala, aurrean ere, bisualizazio bat egingo dugu. Horretarako, ikasleak gelan zehar etzanda jarriko dira, argiak itzali egingo ditugu eta musika jarriko dugu. Bisualizazio gidatua izango denez, irakasleak, hurrengo esaldiekin bideratuko du ikaslearen bisualizazioa:

- *Gogoratzen al zara zer sentitu zenuen kurtso berria hastean, gela berrian sartzean? Beldurra, kuriositatea... agian poza? Hirugarren maila hastear zegoen, hirugarren maila!*
- *20'' Urte honetan zehar une triste baina baita zoragarriak ere igaro dituzu, momentu onak eta txarrak, ekarri gogora une triste horiek...*
- *50'' ...eta une zoragarriak! Ekar ditzagun horiek ere gogora!*
- *1'17'' Eta gelako lagunak? Zer moduz moldatu zara beraiekin?*
- *1'31'' Baina... kurtsoa bukatzen ari da, laster agur esango diogu elkarri. Zer sentitzen duzu orain? Bizi sentitzen duzuna.*

Bukatzeko elkarrizketa sortuko dugu bakoitzak sentitu duenaren inguruan hitz egiteko, urte honetako momentu hunkigarrienak gogora ekartzeko, etab. Gogoratu, aukera paregabea duzuela berriro ere, elkarrizketari dagozkion hainbat irizpide behatzeko.

38. Proiektua gauzatzan

Lan egiteko era: Talde handian

Emanaldi eguna gertu dagoenez, entsegu orokorra egingo dugu, aldez aurretik taldean argituz zer eta nola egingo dugun. Emanaldi ona izan lagunok!

39. Komikia: agurra

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.

Ebaluazioa:

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><i>Gaitasun nagusia</i><i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Hausnarketa.</i> <i>14 (14.1, 14.2)</i>
-------------------	---	---

Ikasleek bakarka gure pertsonaien agurra irakurriko dute eta ondoren elkarriketa sortuko dugu, pertsonaiek esandakoaz hitz egiteko, datorren urtean zein gai landuko dugun iragartzeari ekiteko etab.

Argitxo aitzakiatzat hartuta aukera duzue ikasturtean zehar ikasleen euskararen erabilerari buruzko datuak begiratzeko eta aztertzeke. Nahi izanez gero, ikasleekin beraiekin egin dezakezue euren euskararen erabilerari buruzko hausnarketa.

Kurtsoa bukatu da eta ordua da, denon artean, egindako lanak etab. txukun-txukun biltzeko, etxera eramateko eta gela ere txukuntzeko, atzetik datozenak gustu handiz har dezaten.

OPOR EDERRAK IZAN ETA GOZATU!

Musikako lan-koadernoak

7.1 DOMINAK BANATZEN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 7.1. fitxa/CDa, jarduerak, 41. pista

Oso adi egon behar da ariketa hau burutu ahal izateko. Bi zati ditu. Lehenengoan, errazenean, entzunaldiaren ordenaren arabera lau musika zatiak zenbatu beharko ditugu. Baina bigarrenetan, berriro CDa martxan ipini eta aldi bakoitzean hiru musika tresnek agerpena zein ordenetan egiten duten adierazi beharko da. Beraz, lehenik kanpoaldeko borobiltxoan zenbakia jarri beharko dute, eta gero borobil bakoitzean dauden musika-tresnei 1, 2, 3 zenbakiak jarriko dizkiete ordenaren arabera. Ez larritu behin baino gehiagotan jarri behar baduzue CDa.

Erantzunak hauek dira:

	<i>Urrea</i>	<i>Zilarra</i>	<i>Brontzea</i>
1.	Txirula	Triangelua	Gitarra
2.	Tronpeta	Pianoa	Txindatak
3.	Esku soinua	Saxoa	Klabeak
4.	Biolina	Danborra	Xilofonoa

7.2 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "MAIATZEAN KUKU"

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 7.2. fitxa/CDa, jarduerak, 42. pista

Hiruko neurrian dagoen abestia hau ere. Lan-koaderno honetako azkena, berriz ere biko neurriari itzuliko baikara falta diren biak landu ahal izateko.

Gogoratu: batetik hiruko neurriari ari garela, bestetik punttua eta notak (berriz Re, Mi, Sol, La eta Si). Dena ezaguna dugu, baina ez ahaztu "entrenamenduak" egitea.

7.3. PUXIKA NEURTUAK

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 7.3. fitxa

Bi margo aukeratuko dituzte ikasleek, beraien gustukoena. Puxika bakoitza aztertu eta neurriaren arabera, biko edo hiruko, margo bat edo bestea hartu eta margotu egin beharko dute. Beste neurriaren bateko puxikak aurkituz gero ez dituzte margotuko. Ariketak berez, ez du inolako zailtasunik, baina arreta handiz egin beharreko lana da. Ikasle bakoitzaren arreta maila ebaluatzeko balioko digu.

7.4 UDABERRIAN KANTUZ

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoan, 7.4. fitxa/CDa; jarduerak, 43. pista

Kantuarekin hasi aurretik, orrialdean agertzen zaizkigun ariketak burutuko ditugu. Hiru eskema dauzkagu eta eskema bakoitza lau konpasez osatua dago, aldiberean, konpas bakoitzak hiru taupada ditu. Ez ahaztu hiruko neurria lantzen gabiltzala bolada honetan.

“Udaberrian kantuz” abestean, hirugarren eskemarekin *ostinato* erritmiko bat osatuko dugu. *Ostinatoa*, denbora guztian errepikatzen den eskema erritmikoa da.

7.5 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: “GURE ASTOTXOA”

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoan, 7.5. fitxa/CDa, jarduerak, 44. pista

Abesti honetan, musika-hizkuntzan erabiltzen diren bi hitz berri aurkezten dira. Azken konpasean agertzen den *Da capo*, honek pentagrama hasierara bidaltzen gaitu, berriz hasteko aginduarekin. Beste hitza *Fine* da, honek kantuaren amaiera adierazten digu.

Astoaren arrantzarekin batera kantu honek zerbait bitxia biziarekiko digu. Goiko eta beheko Re agertzen zaizkigu eta zati horren interpretazioak arazoak sor ditzake, bai kantatzerakoan eta zer esanik ez, txirula jotzerakoan. Horregatik da hain garrantzitsua “entrenamenduak” egitea. Dagoeneko *latoso* batzuk garela esaten hasia izango zara, baina esperientziak bultzatuta esaten dugu esaten duguna.

Biko neurria oso ondo egiten dugu, baina hemen zailtasunak emango dizkiguten elementuak ditugu: punttua eta notak (Re, Sol, La, Si eta goiko Re).

Da capo: pentagramaren amaieran agertu ohi da eta hasieratik jotzen hasi behar dugula adierazi nahi du, baina, noiz arte? *Fine* agertu arte, hortxe bukatuko da gure interpretazioa.

7.6. ERRITMO-DIKTAKETA ETA MELODIA-DIKTAKETA

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoan, 7.6. fitxa

Erritmo-diktaketa, biko neurrian eta lau konpasetara mugatuko da. Melodia diktaketa egiteko berriz, hiru notaz baliatuko gara: Mi, Sol eta Si.

Ikasturtea amaitzean gaude eta errepassoa egiteko garaia da. Zuek ikusiko duzue zein zailtasun jarri. Guk hiru eredu proposatzen dizkizuegu. Nahi duzuenak aukeratu. Bi ere egin daitezke. Eta zergatik ez? Frogatu hirurak eginaz.

$\theta \theta / \theta \theta / \theta \theta / \eta$

Erraza: Mi Mi / Sol Sol / Si Si / MI

$\theta \theta / \varepsilon \varepsilon \theta / \varepsilon \varepsilon \varepsilon / \varepsilon \varepsilon \theta$

Normala: Mi Sol / mi mi Sol / sol sol si si / sol sol Si

θ θ / θ. ε / ε ε ε ε / θ θ

Zaila: Mi Sol / Si si / sol sol mi mi / Sol Mi

Erritmo-diktaketa egiteko, perkusiozko musika-tresna bat aukeratu beharko duzue. Azken unean, eta lagungarri gisa edota eskema ongi finkatzeko ahotsa ere erabil dezakezue.

Diktaketa-melodikoari ekin aurretik, hiru notak aurkeztuko ditugu *grabe*enetik hasita. Arretaz entzun behar dituzte 3 nota hauek. Buruan ongi sartu behar dute bakoitzaren soinua. Gaizki ateratzen bada, ez larritu, aukera gehiago izango ditugu eta. Baina beti ere eskatu arreta ikasleei.

7.7 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "ANAI XANTI"

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 7.7. fitxa/CDa, jarduerak, 46. pista

Aurkezpenik behar ez duen kanta da oraingoa. Honekin batera, txirula erabiliaz kanona egiteko aukera ekarri nahi izan dugu.

Lehenik melodia ongi jotzen ikasi beharko dute ikasle guztiek. Kanonari ekiterakoan, nahi badugu, bi talde eginaz hasiko gara, kanonaren gakoa zein den uler dezaten. Azken urratsa, gelakideak lau taldetan banatu eta bakoitzak bereari eutsiz, kanon txukun bat eginaz, gure helburua haurrek polifoniarekin gozatzea izango da.

Kanona interpretatzerakoan lehenengo *tutti* bat egingo dugu, hau da, denok batera kanta osoa joko dugu. Ondoren, lehenengo taldea hasiko da beste hirurak isilik dauden bitartean. Talde bakoitza, bere garaian hasiko da. Nola eta noiz amaitu kanona? Bi modu nagusi dauzkagu aukeratzeko:

1. Demagun abestia bi aldiz jo nahi dugula. Ba, talde bakoitza isildu egingo da bi aldiz jo ondoren. Modu honetan, laugarren taldeak, berak bakarrik, emango dio amaiera melodiari.
2. Zuzendariak emango du agindua. Beraz, oso erne egon beharko dira txirulariak. Kanona nahikoa luzatu dela erabakitzean, zuzendariak *tutti* hitza esango du eta talde guztiak hasierara, lehenengo konpasera itzuliko dira, azken aldiz, denik batera, *tutti* bat eginaz, melodia osoa jotzeko.

Pentagraman agertzen diren 1, 2, 3, 4 zenbakien zera esan nahi dute: lehenengo hasi den taldea 2 zenbakira iristean hasiko dela bigarrena, lehenengo taldea 3 zenbakira iristean hasiko dela hirugarren taldea, eta lehenengo taldea 4 zenbakira iritsitakoan hasiko dela laugarren taldea. Baina beti ere hasi, hasieratik egiten da.

7.8 MUSIKARIEN TXOKOA: "Loreontzifonoa"

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koaderno, 7.8. fitxa

Garbi adierazten da lan-koadernoan nola egin behar den musika-tresna hau. Oso polita da egitea, eta oso polita hartzen duen itxura dekorazioan pixka bat saiitzen bagara. Baina politena soinua da, oso zaila da hitzez adieraztea nolakoa den soinua hori. Hala ere ikerketa prozesu bat egiteko eskatu nahi diegu ikasleei: loreontzi bakoitzak ze nota sortzen duen asmatu behar dute. Horretarako lagungarri izango dute txirula. Eta azkenik, bakoitzak melodia txiki bat sortzea eskatuko diegu, loreontzifonoarekin, noski.

LAN-KOADERNOTIK APARTEKO ABESTIAK

BELA-BELA KABELA

Lan egiteko era: Talde handian/Talde handia bitan banatuta

Materiala: CDa, jarduerak, 45. pista

A

Karta bat iritsi dela,
Zairetik datorrela.

B

*Mela-mela txaramela,
Bela-bela Kabelak.*

Hiruko neurrian dator emana kanta hau ere. Bi taldetan kanona egiteko aproposa. Gogoratu kanona egiteko pausoak; lehenik denek melodia ongi ikasi eta barneratu, gero bi talde egin eta bakoitzak bakarka kantatu. Jarraian aurrena talde bat hasi eta B jartzen duenen tokira iritsitakoan bigarren taldea hasieratik hasi. Belarriak tapatzen ez utzi polifoniaren sentiera izan dezaten.